



eguna

A U R K I B I D E A

1 Kontzeptuak

2 Urratsak

3 Aktibitateak

4 Ebaluaketa

5 Jakintasunak eta hizkuntza edukiak

1 KONTZEPTUAK

Orena : Ordulariaren orratz handiak itzuli osoa burutua duenean, oren bat iragana da.

Eguna : Egunak bi zati ditu, eguzkiak argitzen duena eta gaua. Egun batek 24 oren ditu gauerditik gauerdi arte.

Materiale honetan orduak eta ordulariaren erabilera ez dugu lantzen baina hona erreferentzia interesgarria orduei buruz lan egiteko : *Xirrixta*, 1995eko azaroa, 36. alea.

2 URRATSAK

- Ikasleak dakitenetik abiaraz. Egun bat zer den galda.
- **Egunargia** eta **gaua** egunaren parteak direla agertaraz.
- Aipa eta erabil **goiza**, **eguerdia**, **arratsaldea** eta **gaua** denboraren kontzeptuak. Horretarako, ikasgelan burutzen diren ihardueraz baliu. Adibidez, ikasleak zer tenoretan iratzartzen diren, noiz diren eskolara joaiten, noiz bazkaltzen... eta abar.
- Gauza bera **atzo**, **gaur** eta **bihar** denbora kontzeptuentzat.
- Gisa berean, egunaren memento ezberdinen eta eguzkiaren itxurazko ibilbidearen arteko harremana egin. Adibidez, eguzkia ez delarik, gaua da ; ikusten ez delarik baina ez delarik arras gaua edo eguna, goiztiria edo arrastiria da ; eguzkia ikusten bada (hodeien gaintetik izanik ere), orduan eguna da.

3 AKTIBITATEAK

EGUNEKO EGINTZEN IRUDIKAPENAK KRONOLOGIKOKI SAILKA

▼ **Lehenik**  ikaslearen 1. eta 1. bis fitxak

Egun berekoa : Haur bakoitzak, egunean zehar burutzen dituen egintzen irudikapenak aitzurrekin moztuko ditu ; egunaren egintzak kronologikoki sailkatuko ditu eta bere fitxan (egunaren irudikapenean) itsasiko.

▼ **Ondotik**  ikaslearen 1. bis eta 2. fitxak

Aitzineko egunekoa : Haur bakoitzak, aitzineko egunean burutuak dituen egintzen irudikapenak aitzurrekin moztuko ditu ; kronologikoki sailkatuko ditu eta bere bigarren fitxan itsasiko.

Oharrak :

- **Ikasleek, biñetak, ezker-eskuin eta goitik-behera itsasi behar dituzte egunaren zatiari doakion zutabeen, idazten eta irakurtzen den bezala.**
- **Irudien azpian, egintza zein den idatz daiteke.**

XERRENDA BATEN IRAKURTZEN TREBA  ikaslearen 3. fitxa



▼ Eguna xuriz irudikatua da eta gaua ilunez. Eskolara egunez joaiten gara. Irakurketa goizean egiten da, ondotik bazkaria, eta arratsaldean futbolean jostatzen gara. Xerrenda honetan, bazkaria erdian dago. Bazkaria baino lehen gertatzen dena ezker aldean dago eta bazkariaren ondotik gertatzen dena eskuinaldean.

▼ Haurrak eskolan direlarik 12 argazki egin, gertakariak ongi bereiziz ; ondotik haien sailkapena egin eta azkenik, zutabeetan itsas. Honi esker egunaren zatien iraupena lantzen da.


EGUNAREN IRUDIKATZEKO ETA LANTZEKO BESTE MOLDE BATZUK

▼ Borobilean  ikaslearen 4. fitxa

Borobil bat segmentutan zatitu eta, ikasleek irudiak (biñetak) horretan kronologikoki itsasiko dituzte.

Oharra :

■ *Ikasleek, kontzeptuak ongi bereganatuak badituzte, ez dute molde berrian egiteko zailtasunik izan behar.*



▼ Muntaia ordulari gisa


Gauza bera egin daiteke bainan irudikapena ordulari gisa (orratzekin) eginez :

- ikasleek, kartoin puska bat mozten dute ordulariaren egiteko,
- orratzak kartoinaren erdian lotzen dituzte agrafa batekin,
- beren aktibitate edo egintzen irudiak edo argazkiak leku egokietan itsasten dituzte.

▼ Eguzkiaren itxurazko ibilbideari jarraitzen

Eguzkiaren ibilbideari oartzeko, itzalaren jarraipena egin :

- metro erdiko makila bat lurrean landa ;
- goizean eskolara heltzean, itzala den tokia marka ; gauza bera egin goizeko atsedendian, eguerditan, arratsaldeko atsedendian eta etxera joan baino lehen ;
- itzalaren norabidea eta luzera neurturik, ondorioak atera.



Oharra :

■ *Gai honekin loturik 3. zikloan astronomiari hurbil daiteke ariketa bera eginez hilabete guziz edo lau urtaroen hastapen egunean. Ikasleak bilakaerari ohartaraz eta gogoetak egin. Norabidearekin puntu kardinalak (ekialdea edo sortaldea, hegoa eta mendebaldea edo sartaldea) lantzen ahal dira.*

▼ Eguraldia/Denbora/Aroa ikaslearen 5. fitxa

Egunero aroa aztertzeak egunaren kontzeptua indartzen du. Eguzkia, hodeiak, euria, haizea, elurra... irudiak motz eta taulan itsas.

▼ Atzo, egun, bihar ikaslearen 6. eta 6. bis fitxak

Atzo, gaur (egun), bihar. Kontzeptu hauen bereganatzeko hiru eguneko taulak bete. Ondotik, bi puntak esteka daitezke.

4. EBALUAKETA

lehen ariketa

Hizkuntza

Denboraren egituraketa

Haurrak banazka har eta bezperan egin duten egintzen irudikapenak (itsasiz edo marraztuz) behar den tokietan ezarraraz :

- xerrenda moldeko egunaren irudikapenean
- idurikapen zirkular batean.

Denboraren kontzeptua bereganatu duela frogatua duelarik, hizkuntza lant dezakegu, adibidez aditzaren aspektuen berrikusteko, *lehen, orain, gero, atzo, bihar...* adberbioak erabiliz.


2. ariketa

Hizkuntza

Irakurketa

Ariketa

Ondoko multzoetako hitzak lot itzazu gezienez bidez, erranaldiak osatuz.



3. ariketa

Hizkuntza

Irakurketa

Xerrendaren egintzak deskriba ondoko erranaldietako ziloak betez.







Goizko zazpiak dira ; jeikitzen naiz.
 Kantinan baino lehen,dut liburu bat.
-ren ondotik,era joaiten naiz.
 Gaueko zortziak dira ;
futbol - Bazkaria - ikasgelan irakurtzen - jan - ohetik - oheratzen naiz

5. JAKINTASUNA ETA HIZKUNTZA TAULAK

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK

1 Espazioaren eta denboraren oinarriko kontzeptuen eraikuntza





(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 88. or.).

Bere burua, iragan edo etorkizun hurbilean koka dezake eta gero aitzinatuz bezala, urrunagoko iraganean eta etorkizunean.	
Urtea kudeatzen edo antolatzen duten egutegiaren ezagutza egiten du (urtea, ikasturtea, sasoinen zikloa...).	
Bere espazio ezagunaren irudikapen sinpleen egiten hasten da eta gero experimentazioetik urrundua dauden espazio abstratuagoak konduhan hartzen ditu; bere burua horietan kokatzen ahal du.	
2 Metodologia jakintasunak	
(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 89-91 or.)	
Notizietan eta liburuxketan dauden argitasunen erabiltzeko gai da.	

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN HIZKUNTZA JAKINTASUNAK

1 Ahozko hizkuntza erabili



(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 94. or.).

Bere ekoizpenen, jarreraren eta ekimenen aipatzeko, haurrak bere solasaldia eskema logiko batean sartu behar du.	
Haurrak, plantan hitzegiteko eta joskera osatuagoaren erabiltzeko gai izan behar du.	
2 Hizkuntzaren menperatzeko jakitateak	
(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 100-101. or.)	
Hiztegia : haurrak, kontestuaren arabera, hitz baten erranahi zehatza bereizi behar du.	
Ortografia : testu bat hutsik egin gabe kopia behar du.	

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ERAKAS ALORRETAKO JAKINTASUNAK

1 Matematika/neurriak

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 111. or.).

Memento batzuen ezagutzeko edo iraunaldien kalkulatzeko egutegia eta ordulari digitala edo berdina orratzekilakoa erabiltzen jakin behar du.	
2 Munduari ohartu (ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 112. or.)	
Urrats kronologikoen ordenatzen hasten da urruneko iragana bereiziz. Horretarako, zibilizazio elementu batzuetatik eta berak belaunaldiez duen esperientziatik abiatzen da. Iraganari dagokion informazio bat identifikatzen du kronologia batean kokatuz (lehen, gero, denbora berean).	

EGUNA ■

Plano simple bat bere argibideekin eraikitzen hasteko eta baliatzeko gai izan behar du. Jendeei buruzko geografia eta geografia fisikoari dagozkien elementu batzuen hiztegi zehatzaren erabiltzeko ere bai (auzoa, hiria, herria ; baserria ; eguraldia ; zelaia, mendia ; etxaldea, lantegia, saltegia...). Ikertu dituen inguruetako elementu zenbait ezagutzen ditu aireko argazkietan eta planoetan. Mapetan, lur bolan edo planisfero batean kokatzen ditu ikertu dituen inguruneak.



HIZKUNTZA EDUKIAK

GRAMATIKA EDUKIAK	ADIBIDEAK
<p>1. Aspektua</p>	
<p>Bururatua/ez-bururatua/gertakizuna Aditz nagusiaren aspektu-markak : -TU/-TZEN/-KO</p>	<p>Gauean liburuxka bat irakurtuko dut. Goizean matematika ariketa bukatu nuen.</p>
<p>2. Tempusa *edun eta izan aditz laguntzaileekin Orainaldia/iraganaldia</p>	<p>Orain ikasgelako leihotik begiratzen dut. Astelehenean, marrazkia egin dut.</p>
<p>- (a) N inesiboa</p>	<p>Astelehenean euria egin du. Asteazkenean haizeak ufatu du.</p>
<p>Denborazko perpausen osagailu batzu : -ean, -larik, ondotik, lehenago...</p>	<p>Arratsaldean margotu dugu eta ondotik gure lanaz hitz egin dugu. Goizean kirola egin dugularik euria hasi da.</p>